



BARREN

TOKIKOM

Agertoki handira





PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**Jarri ezazu zure publizitatea
 BARREN astekarian edo
 www.barren.eus webgunean**
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

943 744 112



BARREN
 Kalebarren plaza, 2
 20870 ELGOIBAR



2 x 1 ESKAINTZA
BI LAGUN HELDU, 50€
BI UME, 40€
HIRU HILABETERAKO ESKAINTZA. APROBETHA EZAZU!

MOTIBAZIOAK
 ERARMATEN ZAITU HASTERA
OHITURAK,
MANTENTZERA



* Tai chi
 * Chi kung
 * Kung Fu
 * Pilates eta Gimnasia
 Terapeutikoa
 * Fitness Tonifikazioa
 * Karate
 * Fit Box
 * Zumba

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
UZTAILAREN AZKENERA ARTE

Informa zaituz:
 652 782 303 - 656 741 167
 Pedro mugurutz, 9
 Elgoibar
 www.anaitasunakankueskola.com



Jon Aranao
 Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenerik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larrietatik: 11:00 - 13:00

*Araspaindegi zerbitzua daukagu.
 Deitu ordua hartzen.*

ONWA LED TELEBISTA 40" **SIEMENS ARROPA-GARBIGAILUA**



339€ **40"**

4K ULTRA HD
 SMART TV
 2 HDMI



419€ **519€**
 7kg-ko arropa-garbigailua 8kg-ko arropa-garbigailua

A+++ -20%
 1400 bira minutuko (b/min)
 10 urteko bermea duen iQdrive™ motorra

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.


MILAR BIRE

Ubitarte, 11
 943 741 487
 bire@milar.es

**Extra
 astea**



ENEKO ITURBE



“Zergatik ez diguzu kaleko jendeak modaz duen iritzia plazaratzen?”

Kaixo, Ana. Ez dakit Elgoibarren eta Mendaron horrela izango den, baina Madrilen udan gaude jada; hau da, hau, beroa! Kaleko zein etxeetako txoko freskoenak ere berotu dira, eta, egia hori, agobiatzen hasita nago. Ekaineko lehen asteetan horrelako tenperatura altua baldin badaukagu, zer gertatuko da uztailean eta abuztuan?

Hala eta guztiz ere, onartu behar da beroak eta eguraldi onak poztasuna dakartela, ezta? Esango nuke jendea alaiago egoten dela eta gehienon umorea hobetzen duela eguraldi onak. Kaleak koloredun arropaz betetzen ari dira: beroaren eta eguraldi onaren ondorio izango ote? Egia da azken urteotan kolore bizi-bizikiak izaten direla bildumetan, eta gainera, oso kolore bitxiak ikusten gaitzala. Horregatik, gaurkoan gai honi buruz hitz egitea erabaki dut. Has gaitezen, ba!

Zure bloga ikusi dut, eta oso kolore neutroak erabiltzearen aldekoa zarela esango nuke. Ni ere ez naiz, Ana, oso kolorezalea, aitortu beharra daukat! Modak markatzen duenaren kontrako bi-

dean noala iruditzen zait. Eta, aizu, orokorrean gure herrietako biztanleak kolorezko arrokekin jantzen direla iruditzen al zaizu? Herrietako kaleak kolorez jantzen ditugula uste al duzu? Ezetz esango nuke, ez dugula gehiegi arriskatzen!

Orain gutxi, desfile guzti-guztiak ikusi berri ditut eta fuchsia da, inongo zalantzarik gabe, datorren kolorea. Fuxsiarekin batera tonu gorriak, moreak, laranja edo berdeak ikus ditzakegu. Zer iruditzen zaizu? Gehiegizkoa dela deritzozu, edo berriz kaleetan ikusiko dugun tendentzia dela esango zenuke?

Nire ofizioa dela eta, modari lotutako mundu hau barrualdetik bizi eta ikusten dut, eta oso zaila egiten zait desfileetan ikusten dudan horri komertzialtasunik ez ikustea; hau da, horrelako ekitaldietan erakusten den arropa guztiari jantzigarria eta interesgarria irizten diot. Argi daukat, alabaina, modaren mundutik at bizi den jendeak ezberdin pentsa dezakeela eta, beraz, hurrengoia pentsatu dut: zergatik ez diguzu zuk kaleko jendearen iritzia eta ikuspegi plazaratzen? Interesgarria litzateke, zalantzarik gabe!



ANA ALBERDI

“Nire iritziz, aurtengo tendentziak gehiegikerian erori dira”

Kaixo, Eneko! Ez Madrilen bezainbeste, baina bai, hemen ere egiten du gora tenperaturak. Ni behintzat pasa naiz gona eta sandalietara, eta gezurra badirudi ere, koloreak apurka-apurka protagonismo gehiago hartu du nire looketan; estanpatuak, arrosa itzaliak, bikini biziak...

Zu bezalaxe, ni ere ez naiz oso kolore zalea, baina egia da udaran animatu egiten naizela jantziren batekin, osagarriren batekin edo zapatekin; zergatik ez?

Baina egia da nire iritziz aurtengo tendentziak gehiegikerian erori direla. Denda konbentzional eta multinazionalei burua joan al zaie? Bart erosketak egitera joan nintzen, eta hori, arroxka, berde, gorri eta urdin elektrikoak ikusi nituen toki guztietan. Eta bolantedun alkandorak, non nahi. Estrabagantzian erori gara,

Eneko; hala uste dut nik behintzat.

Egia da moda etengabe berrasmutzen dela, gauza berriak kaleratu nahi dituztela, baina batzuetan ezinezkoak egin nahi ditugu, eta horrek ez du bat egiten gizartearekin; ez euskal gizartearekin behintzat.

Izan ere, zuk ondo esan duzun bezala, gu bion antzera euskaldunak ez gara estrabaganteegiak, ez gara ausartak moda kontuan, ez behintzat nire inguruko jendea.

Tendentziak jarraitzea sahiestezina bada ere, askotan, onena, norberak bere estiloari egokitutako tendentzia propioak sortzea izango litzateke, eta gehiegikerian erori gabe, berritzeko gogo horretan burua galdu gabe, moda gure izateko era islatzeko tresna bezala ikustea.



HARRI & IRI

1.346KO ABENDUAREN 20AN
ALFONTSO XI ERREGEAK...



... MENDAROKO JAUNTOKO ETA
NEKAZARIEI BAIMENA EMAN ZIEN ...



Elgoibarren sorrera

... ELGOIBARKO ZELAIETAN
HIRIBILDU BAT SORTZEKO.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain
hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adieraz-
tuzkoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN**
ARDURADUNA Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizaba-
laga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora
Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea
Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma
Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila,
Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-
hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen An-
sola, Edurne Izaguirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz
Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander
Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazal-
degi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu
Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92
ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Debemen elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere, hilabeteetan zehar antolakuntza bileretara etorri izan diren auzoetako alkateei, eta nola ez, Armueta Harategiko Angeli ere. Baita ere, egunean bertan dastaketa orduan eta bazkaria zerbitzera etorri ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei. Sagardoa banatzen egon ziren gazteak ere ez ditugu ahaztu nahi.

Debemen elkarteak

► ESKERRIK ASKO

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den ekainaren 3an ospatu zen Ikastola-Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi genuen eguna, parte hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro genuen. Bestalde, azpimarratzekoa izan zen antolaketa fin-fin aritu ziren neska-mutilen lana. Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei!

Laguntzaileak: Ainhoa fisioterapia, Alkorta bakailoak, Amagoia gozotegia, Ametsa taberna, Antxustegi, Aranburu bitxidenda, Arriere de la maison de Izaro, Astigarraga kirolak, Bankoa Credit Agricole, Barrenetxea botika, Beristain logistika banaketa, Bire, Caja Rural de Navarra, Debemen, Ecenarro denda, Eizaguirre okindegia, Elgoibar C.D., Elgoibar ikastola, Eroski bidaiak, Eroski supermerkatuak, Etxeberria botika, Etxekit 2000, Euskal Kostaldeko Geoparkea, Evia, G&M jantzi denda, Garate jantzi denda, Garitaonandia botika, Gorbea jantzi denda, Idama ileapaindegia, Ipintza, Irudi argazkiak, Isleder eskulanak, Iz liburu denda, Jai Alai taberna, Jasone Osoro, Jose Antonio ileapaindegia, Kala lora denda, Kanku-do gimnasioa, Karakate jantzi denda, Karkizano, Kastrilejo estankoa, Kristina estetika, Kukua jantzi denda, La

boral Kutxa, La Caixa, Lanbroa taberna, Lorea Castro, Maala kafetegia, Maggi bitxiak, Markel Bergara, Markel Susaeta, Mausitxa, Mekanosa, Nava inprimategia, Pausoak ume zapata denda, Peligrin, Pilon, Pitxintxu, Rakel de la Arada, Salento pizzeria, Sanlo eskubaloitza, Sara jantzi denda, Sigma jantzi denda, Siu fisioterapia, Surya belardenda, Tantaka taberna, Txarriduna jantzi denda, Udal liburutegia, Uzuri optika, Viento Sur gastroketa, Xarlem Kreazioak, Yudego botika, Zazpi informatika. Zu+ni.

Ikastola Eguneko Batzordea

IÑAKI IGLESIAS

Elgoibarren badaude euskara sustatzen duten taldeak, adibidez Morkaiko edo Igeriketa Taldea, baina modu sistematikoan euskarari arnagune gehiena ematen diona Elgoibarko Izarra da. Iturri zaharretik ur berria edaten jarraitu dezagun, egin zaitez bazkide.

► ZU GABE EZ DA BERDINA IZANGO, JUAN MARI

1994an elkartu ginen estreinakoz. Ostirala zen eta zortzi laguneko taldea osatu genuen. Egun osoa eta gauaren zati bat eman genuen kantuan eta eskean. Baserriz baserri, Santa Agedaren omenez. Orduetik ez dugu huts egin. Orduetik ez duzu huts egin.

Anaiaren furgonetaekin azaltzen zinen lehen urteetan, diru-gastuak txikiagoak izan zitezten. Gerora, anaiaren furgoneta txiki geratu zitzaigunean, urtero arduratu zara behar genituen furgonetak lortzeaz. Txoferlanak ere zuk egin dituzu. Gutxi ezagutzen dituzte Elgoibarko baserri-bideak zuk bezain ondo!

Gustura azaltzen zinen Santa Agedako batzarretara, askotan berandu izaten bazen ere. Orduetarik gabeko lana, zurea! Hori bai, batzarrak amaitzeko presarik gabe etortzen zinen. Lagunartea maite zenuelako. Langilea. Fina. Konpro-

metitua. Otsailaren 4a jai hartzen zenuen lanean, baina telefonoa sarri hasten zitzazun dardarka baserri atarietan. Etxe gehienetan izaten zenuen ezagunen bat. Zuk ere ez dakizu zenbat lagun eta ezaguneko sarea josi duzun zure izaeraren jostorrazarekin. Horregatik bete ziren tatorioria, Kalegoen plaza eta San Bartolome parrokia.

Zu gabe ez da berdina izango, Juan Mari. Hurrengo batzarra merienda baten bueltan egingo genuela agindu genizunean irribarre txiki batekin erantzun zenigun, *ea egia den!* esaten moduan.

Ezingo dugu agindutakoa bete, zoritxarrez. Otsailaren 4an ez zara plaza azalduko, baina zurekin bizi izandako oroitzapenak gurekin etorriko dira, baserri baserri. Horrek lagun dugu zuk lagutako hutsunea betetzen.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea



Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izatea?

Mila euroko saria banatuko du Txankakuak 25. urteurrena ospatzeko



Txankakua Elgoibarko Merkatarien Elkarteak 25 urte beteko ditu aurten, eta urte horietan zehar bezeroek emandako babesak eskertzeko, mila euroko saria zozketatuko dute. Ekainaren 15ean Txankakuaren dendetan egindako erosketak mila euroko sariaren zozketan sartuko dira, eta saria mila euroko erosketak txeki bat izango da. Sari bakarria emango dute. Pertsona sarituak arratsalde bakar baten gastatu beharko dituzte mila euroak, 17:00etatik 20:00etara. Txankakua-ko maskotek lagunduko diote karrito batekin dendaz denda erosketak erosi egiten joateko, eta dirua gutxienez elkarteko sei dendatan banatu beharko du. Txankakuak eskerrak eman dizkie Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eta Elgoibarko Udalarari zozketa hau antolatzeke emandako babesagatik.

1.300 eurotik gora bildu ditu Eibarko minbiziaren kontrako elkarteak, Elgoibarren

Eibarko minbiziaren elkarteak diru-bilketa egin zuen joan zen zapatuan Elgoibarren, eta 1.349,64 euro bildu zituzten guztira. Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, Elgoibarko herriari eta elkarteko boluntarioei diru-bilketan parte hartu zuten herritarrei eskerak eman nahi dizkie. Diru hau minbizia duten pertsona eta familiei zuzenduriko arreta, prebentzio arloko esku-hartze eta ikerkuntzarako erabiliko dela adierazi dute Aecc Gipuzkoa elkarteok.

Odol ateratzeak datorren barixakuan

Gipuzkoako Odol Bankuko arduradunak gaur zortzi etorriko dira Elgoibarrera. Odol ateratzeak 18:30etik aurrera egingo dituzte, Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak Osasun Zentroaren albo batean daukan lokalean. Arduradunek gazteei dei egin diete, odola ematera joan daitezten.

Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan euskara erabiltzeko bi gidaliburu atera ditu Elgoibarko Udalak

Merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza esparruetan euskara erabiltzeko bi gidaliburu argitaratu ditu Elgoibarko Udalak, euskara biziberritzeko planaren barruan. Gida hauetan denda, taberna eta zerbitzuetako ohiko errotulu, ohar eta elkarrizketetan erabiltzeko esaldirik ohikoak bildu dituzte. Horrez gain, ostalaritzarako gidan menuak eta karta euskaraz egiteko lagungarri izan daitekeen hiztegia ere jaso dute.

Gida horiek Udalaren webgunean izango dira herritarren eskura, eta Kultur Etxean (Euskara Sailean) jasotzeko aukera ere izango da goizeko ordutegian, 8:00etatik 15:00etara. Gida establezimenduan bertan jaso nahi izanez gero, eskatu 943 744 366 telefono zenbakian edota emailaz euskara@elgoibar.eus helbidera mezu bat bidali.



Juan Mari Uranga hil da, urte askoan Elgoibarko eta Mendaroko bake epaile izandakoa



○ stiralean hil zen Juan Mari Uranga Elgoibarko eta Mendaroko bake epaile izandakoa, 51 urterekin. 2001. urtean izendatu zuten Mendaron bake epaile Uranga, eta 2010eko martxora arte bete zuen ardura hori. Elgoibarren, berriz, 2009an hartu zuen kargua eta gaur arte izan da bake epailea. Era berean, Epaile Artean Euskal Herriko Bake Epaileen Elkarteko zuzendaria ere izan zen bi alditan. Pertsona ezaguna zen Elgoibar, Men-

daroko eta inguruetan, "oso gertukoa", ezagutu zutenen berberetan. Azkeneko urteotan Sigma Probaleku elkartearen ere ibili da lanean, eta euskal kulturari lotutako beste hamaika saltsatan ere parte hartu izan du, santa eskean besteak beste. Jaiotza, heriotza eta ezkontza-erregistroak izenpetu, munta gutxiko arazo zibilak eta hutsegite edo falta arinak epaitu eta auzoen arteko auzietan bitartekari lanak egitea izan da, baina, bere eginkizun nagusia urte guzti hauetan. Bake epaileek herritarrekin duten gertutasunagatik Lehen Instantziako epaileek baino errazago konpon ditzakete arazoak epailetara iritsi aurretik eta Urangak aitortu izan zuten bere laneatik horixe zuela gustukuen, arazoak gerturatzeari.



Dantza modernoko ikasleen jaialdia, gaur, Mendaron

Mendaroko dantza modernoko ikasleek ikasturte amaierako jaialdia eskainiko dute barixakuan, 22:00etan, frontoian. Ana Alberdi, Lucia Dieguez eta Nahia Aizpuruak zuzendutako ehun ikasle inguruk parte hartuko dute, 4 urtetik 17 urtera artera arteko neska-mutilek. Guztira, hemeretzi dantza egingo dituzte, eta bukaeran, nagusienek zazpi urtean ikasitako dantza sortaren erakustaldia egingo dute.

Traktorea erosi du Debemenek

Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako Elkarteak traktorea erosi du, elkartearen osatzen duten sei udalerrietako baserri bi-deak eta landa ingurunea garbitzeko, tartean Elgoibar eta Mendarokoak. 2.000 urtean erosi zuten John Dere traktorea ordezkaturiko du berriak.





Mohamed Ky Abujbara eta Ismail Ibrahim

Begiak Palestina okupatuan

Palestinarekiko Elkartasun Eguna antolatu du Pablo Garrido elgoibartarrak biharko. Arrazoia zein den ez du garbi, baina Palestinarekiko lotura berezia sentitzen du Garridok, eta okupazioaren inguruan gogoeta egitera eta palestinarrak bizi duten egoera "jasangaitza" salatzen bultzatu nahi ditu elgoibartarrak.

- AINARA ARGOITIA -



Elgoibarren eta Eibarren batutako ehun kilo arropa eta 30 bat kilo eskola-materialekin Palestinan oinez sartzeko ahalegina egin zuen iaz Pablo Garrido elgoibartarrak, baina Israelgo soldaduek ez zioten laga, eta Jordaniara bueltatu behar izan zuen. Han, errefuxiatuta bizi diren palestinarren kanpamentuak bisitatu zituen, eta bere begiz ikusi zein baldintza "negar garritan" bizi diren. Ez zuen Palestinako lurralde okupatuan sartzerik izan, baina Israelgo Poliziarekin izan zuen hartueman laburra nahikoa izan zitzaion palestinarrak egunero bizi duten "jazarpa, duintasunaren ukapena eta miseria" ikusteko. Eta etsita baino gehiago, indartuta bueltatu zen, Palestinaren alde borrokan jarraitzeko "amorrarazita". Palestinarren egoera gizarteratzea hartu zuen erronkatzat, eta biharko, Elkartasun Eguna antolatu du Elgoibarren. Hainbat lagun izango ditu aldamenean, tartean, Mohammed Ky Abujbara eta Ismail Ibrahim. Palestinarrak dira Abujbara eta Ibrahim, 26 eta 25 urte dituzte hurrenez hurren, eta bihar, euren herrialdean bizi duten egoeraren berri emango dute, Maalan. Arabieraz eta ingelesez jardungo dute, baina itzultzailea izango dela aurreratu du Garridok.

Deban ezagutu zuten elkar Pablok, Mohammedek eta Ismaillek, "kasualitatez". Gauetz, ilunpetan, Palestinaren aldeko horma-irudi bat egiten jardun zuen Ibaiaren ertz batean Garridok, eta biharamunean, egun argiz, irudia nola gelditu zen ikustera joan zen Ibaiaren beste aldera. Hari begira zegoela, garaipen ikurra egin zioten aldamentetik pasatu zitzaizkion bi gaztek eta hitza eman zien. Mohammed, Ismail eta Mustafa Omar ziren. Halaxe

sortu zen Elgoibarren Palestinaren okupazioaz jarduteko asmoa.

Mohammed Gazakoa da sortzez, baina 9 urte zituenetik Palestinatik kanpora bizi da. 2008an egin zuen ihes hainbat seniderekin, urte hartako abenduan Israelgo Armadak *Berun urtua* operazioa abiatu zuenean. 22 egunetz airetik, lurretik eta itsasotik egin zion eraso Israeliek Gazari. 40 urtetako sarraski handiena izan zen, eta Nazio Batuen Erakundearen arabera, 1.500 palestinarrak baino gehiago hil ziren eta hamahiru bat israeldar. "Han ezin zitekeen bizi", dio. Lurralde okupatua da Gaza, Zisjordania eta Jerusalem ekialdea bezala. 1967an hartu zituen Israeliek, Sei Eguneko Gerran, eta 2005ean kokagune juduak hustu eta erretiratu bazen ere, Gaza lurretik, itsasotik eta airetik kontrolatzen segitzen du Israeliek. 350 kilometro koadroko lurra da Gaza, eta ia bi milioi palestinarrak bizi dira.

GAZA, KARTZELA HANDIA

"Kartzela handi bat da, aire zabaleko kartzela handia". Bi arrebak ditu han Mohammedek, "irten ezinda". Israeliek "bakartuta eta pilatuta" ditu palestinarrak Gazan. "Argindarrik, urik eta osasun baliabiderik gabe daude. Egunean bi orduz bakarrik dute argindarra, eta tarte horretan ere, sarri eteten diete. Ez dago lanik, ez dute etorkizunik eta egunerokoa zaila da, oso zaila. Ura kutsatuta dago, zabor tonak pilatu dira, lurra gero eta lehorrakoa da, eta inguru guztia hesituta dute. Egon beste aukerarik ez dute; biziraun". 1994-1996. urteen artean eraiki zuen Israeliek Gaza inguratzen duen hesia, 60 bat kilometrokoa. "Preso daude

Gazan. Ezin dute inora alde egin. Horregatik esaten dizut kartzela handi bat dela Gaza. Begira, Hegoaldean, Egiptorekin egiten du muga gure herrialdeak, eta iparraldean eta ekialdean, Israelekin, eta inguru hori hesituta dute eta militarrek dituzte, dena kontrolatzeko. Mendebaldean, berriz, Mediterraneoan daukagu, baina hori ere kontrolpean dauka Israel. Ezin da kostaldetik sei kilometro urrundu". Lurrez eta itsasoz ez ezik, airez ere kontrolpean ditu palestinarrak. Airez bonbardatzen dituzte. Hainbat lagun galdu ditu Mohammedek urte hauetan. Bonbardaketetan hil dira. "Nire bi iloba ere zauritu dituzte eta zazpi auzotarrek erredura larriak izan dituzte". Israeliek bere inguruan laga dituen biktimak zenbatzen hasi da, baina bat-batean, eten egin du jarduna. "Bar-katu, baina ez dut oroitu nahi. Ez nuke nire ingurukoez hitz egin nahi. Sufirimendua orokorra da Palestinan. Han ez dago bizitzetik", esan du. Israeliek gain, Hamasen gobernuaren beraren jorkaera ere salatu du. "Eurenak bakarrik babesten dituzte", dio.

Telefonoz eta sare sozialen bidez komunikatzen da tarteka Gazan dituen senide eta lagunekin, eta "abailduta" sumatzen ditu. Buruko gaixotasunak dituztenen kopurua izugarri hazten ari dela dio. Zazpi neba-arreba dira Ky Abujbaratarrak. Bi anaia eta arreba bat Suedian bizi ditu, beste arreba bat Malaysian, beste bi Gazan eta berak astebete darama Eibarren. Eibarrera iritsi aurretik Arrasaten bizi izan da, zortzi hilabetez. Gaztelania ikasten dihardu. Barne-diseinua ikasi du, baina edozertan lan egingo lukeela nabarmendu du. "Gure antzera sorterrria utzi behar izan duenak beti izaten du noizbait bueltatzeko itxaropena, baina nik neuk ez daukat asmorik, familia gehiena handik kanpora bizi dudelako", nabarmendu du.



Pablo Garrido.

17 ZAPATUA

12:00 Mosaiko solidarioa egingo dute Kalegoen plazan, puxika eta margoekin.

18:30 Hitzaldi-solasaldia Maalan. Ismail Ibrahim, Mohammed Ky Abujbarak eta Mustafa Omarrek Palestinan bizi duten egoeraren berri emango dute.

19:30-23:00 'Harresien aurkako jaia. Apartheidik ez!' jaia. Bideo musikalak. Bost euroan bi edari eta pegatina bat banatuko dituzte. Era berean, Mexikoko takoak dastatzeko aukera ere izango da.

Ismailek, bai. Ismailek Palestinara itzultzearekin amets egiten du. Tulkarengo da, eta garbi dio han egoera ez dela Gazan bezain "dramatikoa", baina, hala ere, bizitzea nekeza dela dio. "Zaila da han bizi duguna azaltzea, eta zuentzat zaila da ulertzen, telebistak hango berri gutxi ematen duelako eta ematen duena ez delako beti errealitatearekin ondo ezkontzen". Han gertatzen dena ikusteko bertara joatea ezinbestekoa dela dio, baina gaur gaurkoz, ezinezkoa dela gehitu du Mohammedek: "Israeliek ez zaio interesatzen han egiten ari dena ikustea". Pablok hartu du hitza komunikabideen lan funtzionamendua salatzen. "Handiren bat gertatzen denean zabaltzen dituzte albistegi guztiak noztia horrekin eta biharamunean isildu da dena. Errefuxiatuekin zer gertatu zen? Non daude orain? Konpondu da dena, ala?"

Urtebete pasatxo darama Ismailek Eibarren bizitzen. Erizaintza ikasketak hasi zituen han, baina derrigorrean laga behar izan zion ikasteari. "Oso garestia zen". Jordanian eta Grezian bizi izandakoa da Euskal Herrira iritsi aurretik, eta arreba bat ez beste senide guztiak – gurasoak izeba bat eta hiru anaia – Palestinan ditu. Israeldik gertu dagoenez Tulkarem, argindarra Gazan baino ordu gehiagoz dutela esan du, baina segurtasun gabezia handia dela. "Han ez dago lasai bizitzetik. Soldaduak nahi bestetan sartzen dira, eta beldurrez bizi dira gure herrikideak, eta hori egoera jasangaitzera ere ohitu egiten dela bat. Atxiloketak, torturak... Israel zigorgabetasun osoz ari da, direnak eta bi egiten", salatu du. Beltz ikusten du etorkizuna. Ez du mugimendurik sumatzen. Interes politiko handiak daudela ikusten du, eta ezinezkoa dela nazioartean babesik gabe Israelen kontra egitea. "Indar handiegia du, eta nahierara zapaltzen gaitu".

Konponbidea urruti ikusten dute. Zehatzago esateko, ez dute irudikatu ere egiten. "Palestinak ez du gerrarik merezi. Bakea besterik ez dugu eskatzen. Laga gaitzatela bizitzen. Jende askok gaizkiletzat gaitu, baina gu bakezaleak gara. Palestinar bat ezagutzen duenak badaki hori".

▶ Trinitateak argazkitan

Une alaiki, hunkigarriak eta ahaztezinak. Trinitate jaietan denetarik izan genuen, eta BARREneko argazki kamera une horiek harrapatzeko lanetan aritu zen. Bi orrialdeotan dituzue joan zen asteburuan izoztutako hainbat une, baina askoz gehiago izan ziren Trinitate jaiak eman zizkiguten uneak. Horiek guztiak eta bideoa ikusteko: www.barren.eus





Mendaro

Mendaro



Steffan Runquist eta Esther Schoenmakers, joan zen astean, Elgoibarren.

Kantua, bizi-filosofia

Musika dute ogibide, eta kalea, oholtza. Zazpi urte daramatzate batetik bestera, kalean musika eginez irabazten dutenarekin bizitzen. Bizimodu gogorra dela aitortu dute, baina aldi berean, "aberasgarria oso". Egunotan, Elgoibarren ibili dira, bazterrik bazter kantuan. Ikusi ditugu herritarrekin hizketan, beti irribarretsu, beti umoreko. "Oso eskuzabalak izaten ari dira gurekin elgoibartarrak". Arrastoa laga dute San Frantzisko kalean, bertako dendarien arabera. "Egun osoa emango nuke havei entzuten", aitortu du Kontxi Egurenek, Kontxi jantzi-dendako nagusiak. Alderai dabilta Gipuzkoan, batetik bestera gurditxoari tiraka, baina askok jakingo ez duten arren, ospea ezagututakoak dira, urte asko ez dela. Bideoa: www.barren.eus

- AINARA ARGOITIA -

Ziur ikusi dituzuela, edo gutxienez, entzun. Steffan Runquist eta Esther Schoenmakers dira, eta egunotan Elgoibarren dabilta, kantuan eta eskean. Herbehereetakoa da Esther, eta suediarra Steffan, eta urtarilaz geroztik Gipuzkoan barrena dabilta, gitarra, anplifikadore txiki bat eta mikrofonoa hartuta. Kalean, bertsioak jotzen dituzte gehienbat, eskean ateratzen dutenetik bizi direlako eta ezinbestekoa zaielako jendea erakartzea, baina badituzte kantu propioak eta ezagutu dituzte jendea erruz hurbitzen zitzaizen garaiak ere, Steffanek bai behintzat. Izan ere, 90eko hamarkadan sona handia hartu zuen Undrop taldeko abeslari izandakoa da Steffan —Tomas anaiak eta Antonio Crespo baxu-joleak osatzen zuten taldea—, eta 1994an, kontzertua ere

eman zuten Elgoibarren, Malape tabernan. *Train* izenburuko abes-tiarekin kantu arrakastatsuenen zerrendan goia jo zuen Undrop taldeak 1998ko udan, baina kalean sekula ez dute jotzen.

Ospea gozatu eta "sufritutakoa" da, eta oraindik bizimodu hark sortutako zorrak kitatzen ari dela dio. "Kapitalistekin jolasean ibili ginen, finantza kontuez ezer jakin gabe. Famatu izan nahi genuen, musikaz bizi ahal izateko ospea izatea ezinbestekoa ikusten genuelako, eta ekonomia ikasten ere hasi nintzen aberatsa egiteko gosez, baina ez ginen oso kontziente norekin ari ginen. Eta famatu izatea ez da txarra, jolas-arauak legezkoak badira: hau da, lurra eta inguruko besteak esplotatu ezean. Sistema kapitalista ustelduta dago, baina. Enpresa handiak eta finantza era-

“Ospea besteen
begietan bilatzen dugu
beti, baina ez gara
jabetzen besteen
begietan handi ikusteko
sarri geure buruarekin
jokatzen dugula desleial”

- Esther Schoenmakers -

kundeak besteen kontura bizi nahi duten parasitoak dira, eta talentudun artistak, txotxongiloak, haien eskuetan. Bizitzan balio handiena duena kentzen digute, denbora, eta gu geu ari gara guretzat kaltea besterik ez dakarren sistema elikatzen”, dio Steffanek. Eta amaitu nahi du hori. Edo gutxienez, urrundu “kalapita” horretatik. Ariketa horretan dihardu azkeneko urteetan. Zintzoa izan nahi du bere buruarekin, sentitu, pentsatu eta egiten duenaren artean koherente izan; “ahalik eta kohereteen, ez baita beti erraza. “Ospea besteen begietan bilatzen dugu beti, baina ez gara jabetzen besteen begietan handi ikusteko sarri geure buruarekin jokatzen dugula desleial”, gaineratu du Estherrek. Maitasuna eta politika gaien ingurukoak dira euren letrak, baina saiatzen dira “etsenpluaren bidez predikatzen, eta ez moral bikoitzarekin jokatzen”. Kantu bat sortzen dutenean hamabost urteko epean esaten duten horri eusteko gai diren pentsatzen dute beti, jendeaurrean kantatu aurretik. Hori da ariketa. “Bizitza-filosofia” duten horrek egin ditu musikari alderrai. Bikotea dira, musikan eta bestela ere bai. Besteak beste, Kataluniako La Fera Ferotge taldean ibilitakoa da Esther, eta elkarrekin, Bluemor Blaze proiektua sortu zuten gerora, Katalunian elkar ezagutu ostean. “Cash converter batera jo eta ordu t’erdian dena saldu nuen, eta Euskal Herrirako autobusa hartu genuen gero”, oroitu du Steffanek.

EUSKAL HERRIAZ MAITEMINDUTA

Hamaika ibili egindakoak dira munduan, bakarka nahiz elkarrekin, baina beti itzultzen dira Euskal Herrira, “atseden hartzera”. “Euskal Herria diamante bat da munduan, hemen ez dagoelako faxistarik”, dio Steffanek. “Ia ez dago”, zuzendu dio ondotik Estherrek. Bi urtez Arrigorriagan bizitakoak dira, eta orain, lau hilabete daramate Gipuzkoan hara eta hona, frontoietan, elizpetan eta egokiera etortzen zaien lekuetan kanpin-dendan lo egiten, eta nabarmendu dute sekula ez dutela arazorik izan. “Inoiz ez. Hau izugarria da. Herrialde guztiek dituzte euren alde onak eta txarrak, baina Euskal Herria bezalakorik ez dago. Beti egiten dugu geldialdi bat hemen, ikasteko eta indarrak hartzeko. Uneoro ari gara ikasten”, esan du Estherrek. “Zazpi hizkuntza dakizki berak”, gehitu du ondotik Steffanek. Euskara ikasten ari dira orain. “Arrigorriagan bizi ginenean Bilboko Alde Zaharrea ibiltzen ginen kantuan, eta han, ez nuen euskararen horrenbesteko premiarik sentitu, baina Gipuzkoan denek hitz egiten dute eta ari naiz saiatzen, Europan gustukuen dudak lekua hau delako bizitzeko eta hizkuntza asko jakin arren, hemen bertakoa falta dudalako”, azaldu du Estherrek. Orgatik kartel bat ateratu du lagunak. Honela dio: *Musika da gure ogibidea. Kanean jotzen dugu. Euskara ikasten ari gara. Nahi baduzu, hitz egin pixkat bat gurekin.* “Pertsona adinekoek bakarrik irakurtzen dute,

beste guztiok ez duzelako irakurtzeko ere astirik hartzen”, bota du, eta hitz beste egin du kalean bizitzearen “onurak” zerrendatzeko. Kalea eskola ona dela dio. Pertsona zailtzen duela, gogorra delako egunero, esnatzeaz batera, lo egiteko leku seguru baten bila ibiltzea eta erosotasun askorik gabe ibili behar izatea, baina horixe bera du ona, haien ustez: alferreko gauzak bereizi eta bizitzeko oinarriko gauzak zeintzuk diren jabetzeko eta norbere burua ezagu-

tzeko aukera eskaintzen duela. “Bizitzeko ezinbesteko zaigun guztia naturan dago. Gauza larregi dauzkagu arreta galtzeko, eta ondorioz, burua galtzeko. Denbora da erosi ezin dezakegun gauza bakarra, eta horixe da denok falta duguna”.

Kalean bizi dena “behatzaile ona” izan ohi dela zehaztu dute, eta bistan da badirela. Euskal Herrian, bost kilometroren barruan daude bi herri erabat ezberdinak direla nabarmendu dute, eta bost minutu nahikoa direla udatik negura saltoan pasatzeko. Behatzen hasita, begiradei erreparatzen diete beraiek. Estherrek dio sekula aurrez egon gabeko herri batean kantuan hasten denean, aurrez aurre begiratzen dion lehen pertsonaren aurpegierari erreparatzen diola berak, herritarren izaeraren eta kezken pultsua hartzeko. Badaki orokortzeak arriskua dakarrela, baina Euskal Herrian funtzionatzen duen ariketa dela dio. “Bihotz onekoak zarete, eta oso esker onekoak. Oro har bai behintzat. Ikusi besterik ez dago umeak zein modutara gerturatzen zaizkigun, zein motatako galderak egiten dizkiguten”.

Egunean hiru bat ordu ematen dituzte kalean kantuan. Orain, zerbait gehigo, Esther min hartuta dagoenez kanpinetik kanpinera dabiltzalako azkeneko hiru asteetan, eta ondorioz, diru gehiago atera beharra dutelako. Gaur, San Frantzisko kalean jarri dira, Kontxi jantzi-dendaren aurrean. “Atzo baimena eskatu genion, eta lasai jotzeko esan zigun. Oso jatorra da”, esan du Estherrek. Hasi dira kantuan eta pilatu zaie publikoa. Mikel Laboaren *Txoriak txori* kantua abestu dute lehenengo, propio BARRENERAKO, eta *Whiskey in the Jar* Irlandako herri-kanta ondoren, Metallicak eta beste hainbatek moldatu izan dutena. Kantuan ari direla, udaltzaina ere gerturatu zaie. Uste zitekeenaz bestera, Kalegoen plazan edo Kalebarrenen publiko handiagoa izan dezaketela ohartarazi die. “Hau beste herrialde batean pentsaezina da. Polizia gurekin kezkatuta!. Inguruko herrietan jaiak non diren esan digu. Ikusten? Euskal Herria izugarria da”. Esker onez, Lou Reeden kantua abestu diote, zalea dela esan dielako, eta azaldu diote ez direla festetan jo zaleak. “Publikoarekin dugun hartuemana ezberdina da festetan, inpersonalagoa. Gainera mikrofono bakarra daukagu eta ez gaude jende askoren aurrean abesteko. Eskertzen da, hala ere”. Eta euripean kantuan jarraitu dute.

▶ GOYO YEVES

CELTAS CORTOS TALDEKO KIDEA

Valladolideko lagun talde batek Celtas Cortos taldea sortu zuen 1986an, eta gaur arte bi milioi disko baino gehiago saldu ditu. Rock, folk eta zelta estiloko musika egiten dute. 30 urteko ibilbidearen ostean gauza berriak probatzen dihardute, eta besteak beste, musika bandekin eskaintzen dituzte kontzertuak. Gaur, Elgoibarko musika bandarekin joko dute. Goyo Yeves taldeko saxofoi jolearekin egon da BARREN.

- AINHOA ANDONEGI -



♦ Nola hasi zenuten musika bandekin kontzertuak eskaintzeko ibilbidea?

Orain dela urte batzuk izan genuen honelako esperientzia bat Valladolideko txaranga batekin. Ez da gauza bera, baina hori izan zen lehenengo esperientzia. 2014an, *Contratiempos* diskoa kaleratu genuenean, ikusi genuen lau abesti musika banda batekin joteko oso aproposak zirela. Valladolideko kontserbatorioan jende ezaguna daukagunez, bertako bandarekin grabatu genituen abesti horiek. Diskoan oso ondo geratu ziren, eta zuzeneko emanaldietara eramateko aukera aztertzen hasi ginen. Gipuzkoako promotore batek aipatu zigun Oskorri taldeak ere egin zuela estilo honetako zerbaite eta oso ondo irten zela. Hori jakinda, gure abestiak musika bandekin joteko prestatu genituen, eta horrela hasi genuen ibilbide hau.

♦ Eta nolako emaitzak jaso dituzue formatu berri honetan?

Oso onak. Bi urte daramatzagu eta dagoeneko emango genituen 30 bat kontzertu herri desberdinetako musika bandekin. Esperientzia oso polita da. Musikari bezala, gure bandarekin jotea oso polita eta berezia da; hunkigarria. Zure ontzia bat-batean transatlantiko bihurtu dela ikusten duzu, eta polita da benetan. Aurten kontzertu elektrikoekin uztartzen ditugu estilo honetako kontzertuak. Oraindik ere

jendeak nahiago ditu ohiko kontzertuak, bereziki, udan.

♦ Abesti asko eta ezagunak dituzue, baina zeintzuk ez dira faltako gaur gauean Elgoibarko kontzertuan?

Gaurko kontzertuan abestuko ditugun abestiak *In Crescendo* diskoan dauden berberak izango dira. Disko hau iaz grabatu genuen Asturiasen, hango musika banda batekin, eta bertan abesti zaharrak, ezagunak eta berriak daude, eta baita abesti instrumental bat ere. Kontzertuan, bestalde, lau abesti geuk bakarrik joko ditugu. Taldeko bost kide joango

“Gure abestiak bandarekin jotea oso berezia eta polita da”

gara zazpi beharrez; modu akustikoagoan goaz, eta gure aurkezpen moduko bat izango da.

♦ 30 urte daramatzazue musikan. Gauza berriak egitea ezinbestekoa al da mundu horretan bizirauteko?

Gure kasuan, ez geneukan gauza berrien beharrik musikan bizirauteko. Zorionez, gauzak ondo joan zaizkigu eta lana soberan daukagu, baina musikari bezala bageneukan gauza desberdinak probatzeko gogoia. Merkatuagatik baino gehiago, gugatik egin dugu. Behar genuen osagai berrien bat, zuzenekoetan



beste modu batean gozatzeko. Formato guztietan gozaten dugu, baina bandekin jotzea benetan polita da. Formato honek antzoki eta auditorioetan joteko aukera eman digu, eta gustatu zaigu. Gure kontzertuak normalean festetan eta jai giroan izaten dira, eta hau erabat desberdina da. Gu oso gustura ari gara, eta ikusleak ere gustura ikusten ditugu. Kontzertu hauek babes handia izaten dute publikoaren aldetik, bandetan jende askok jotzen delako; baten semeak, bestearen lehengusuak, ilobak... Hori dela-eta, herriarrek bere egiten dute emanaldia. Kontzertu oso beroak izaten dira. Azken batean, Celtas Cortos taldearen kontzertua da, baina euren herriko bandarekin. Eta bandentzat ere oso interesgarria da formato hau, publiko desberdina joaten delako saioetara. Jende askori ez zaio gustatzen musika bandaren ohiko kontzertuetara joatea, baina emanaldi hauek oso erakargarriak dira, doinu desberdinak eta abesti ezagunak tartekatzen ditugulako.

♦ **Musika talde asko hasten dira, baina ez dute aurrera egiten. Zein da hainbeste urtean elkarrekin jarraitzeko sekretua?**

80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hasieran, ezagutzera eman ginen, zortea izan genuen. Gure musika estiloa oso berritzailea zen Espainian, eta fusio horrek lekua egin zigun musikan. Aurrenekoak izan ginen estilo horretan, eta horrek nortasuna eman zigun. Jai giroko soinua zen, erraz sartzen zena. Uste dut produktu originala egiten asmatu genuela, zuzenekoetarako oso aproposa zena, eta Udal askok eman ziguten euren herriko jaietan joteko aukera. Horrez gain, irrati kateen babes handia izan genuen, eta 90eko hamarkadan asko entzun zen gure musika irrati kateetan. 90eko hamarkada izan zen gure hamarkada. Lan handia egin genuen urte haietan, futbol zelaiak ere bete genituen, eta gure ibilbiderako oinarri sendoak ezarri genituen. Horri esker aurrera egin dugu. Orain ere lanean segitzen dugu, abesti berriak sortu eta diskoak ateratzen, baina hasierako lan hark ematen duen babesarekin. Hori oso ga-

rrantzitsua izan da, baina bereziki, gure arteko harremanean dago sekretua. Lagun talde bat gara, oso ondo konpontzen gara, elkar ulertzen dugu, bakoitzaren behar pertsonalak modu humanoan zaintzen ditugu, eta hori funtsezkoa da. Talde asko elkarbizitza arazoengatik desegiten dira. Protagonismo nahiak edo izaera desberdinak batzuek min egiten du. Ez da gure kasua izan. Giro bikaina daukagu taldean, eta horri esker daukagu abesti berriak sortzeko eta lanean segitzeko ilusioa.

“Oraindik soka luzea daukagu. Udazkenean disko berria grabatuko dugu”

♦ **Zuen ibilbidean bi milioi disko baino gehiago saldu dituzue. Gaur egun, baina, ez da diskorik saltzen. Zein egoera bizi du musika gaur egun?**

Disko salmentari dagokionean merkaturia beltz dago. Guk disko asko saldu ditugu bai, baina hori erabat anekdotikoa da, gaur egun ez delako ezer saltzen. Merkaturia hondoa jota dago. Guk beti landu izan ditugu zuzenekoak, sinisten dugulako musikaria eszenatokian formatzen dela. Eta guri zuzenekoak eman digu jaten. Disko asko saldu arren, disko bakoitzetik iristen zaizun dirua oso gutxi da, birtartekari asko daudelako. Bi mundu paralelo dira: disketeak taldearen promozioan inbertitzen du, eta horrek taldeari zuzeneko emanaldiak ematen dizkio, baina diskoen salmenten diru gehiena disketxera doa. Eta diskoen salmenta hondo jota dagoenez, gaur egun funtzionatzeko modua desberdina da. Gure azken bi diskoak geuk ekoiztu ditugu, disketxerik gabe, eta promoziorako Internet erabiltzea ezinbestekoa da. Lehen etsai bezala ikusten zuten taldeek Internet, eta orain, aldiz, aliatua da. Erreminta oso

interesgarria da musika zabaltzeko, eta erabiltzen jakinda, etekin handia atera da-kioke.

♦ **Abestietan gizarteari kritika egiten diozue. Uste duzu musika taldeei tokatu zaizuela gizartearen kritikatzeko papera?**

Bai, zalantzarik gabe, eta uste dut gainera musika eduki behar duela egin behar hori. Kultura eta artearen parte da musika, eta beti egon da ideologia zehatz bati lotuta. Gure sorreran, taldearen lehenengo lau urteetan, abesti instrumentalak bakarrik egiten genituen, eta gaur egun ere beti sartzen ditugu abesti instrumentala diskoetan, baina abestiei letra jartzea erabaki genuenean argi ikusi genuen gizartearen hainbat alorre buruz geneukan jarri erakutsi behar genuela. Argi geneukan eszenatokian gainean egoteak ematen duen botere apur hori aprobetxatu behar genuela gure egonezina eta taldearen ideologia erakusteko. Letra gehienak Cifuk –Jesus Cifuentes– egiten ditu, baina denok bat gatoz pentsamolde horrekin.

♦ **Zer sentitzen duzue publikoak zuen kantak abesten dituela ikustean?**

Harro sentiitzen zara. Zerbait garrantzitsua egiten ari zarela sentitzen duzu. Eta bereziki, eskertuta sentiitzen zara. Eskertuta, gure ametsa egi bihurtu dugulako. Gu oso gazte hasi ginen honetan. Institutuan genbiltzan lagun talde bat ginen, musika genuen gustuko eta arratsaldetan elkartzen ginen joteko. Gure ametsa talde bat sortzea zen, eta publiko horri esker lortu dugu. Izugarri estimatzen dugu musikatik bizi ahal izatea, gustuko duguna egitea, eta horrek laguntzen digu hankak lurrean mantentzen. Jendea gurekin dagoela sentiitzen dugu, bai kontzertuetan eta baita sare sozialetan ere, eta publikoari eskerrak ematea besterik ez zaigu gertatzen. Ezin dugu gehiago eskatu.

♦ **30 urte pasatu dira hasi zinetenetik. Noiz arte izango dugu Celtas Cortos?**

Oraindik soka luzea daukagu. Bizirik gaude! Eta, bira hau bukatzen dugunetarako, baditugu ideia berriak. Udazkenean disko berria grabatuko du, datorren urtera begira. Proiektu berriak eta sormena ez zaizkigu falta, eta lanean jarraituko dugu.



▶ GORKA MUJIKA

UDAL MUSIKA BANDA KO
ZUZENDARIORDEA

Iritsi da eguna. Gaur gavean Udal Musika Bandak Valladolideko Celtas Cortos taldearekin eskainiko du kontzertua Kalegoen plazan. Kontzertu berezia izango da. Celtas Cortos taldearen abesti ezagunak musika bandarekin joteko egokitu dituzte, eta besteak beste, *Cuéntame un cuento*, *Tranquilo majete* edo *20 de abril* abestiak joko dituzte. Gorka Mujikak zuzenduko du kontzertua, eta berak eman dizkigu azalpenak.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Nondik sortu da Celtas Cortos taldearekin kontzertua emateko aukera hau?

Iaz rock gava eskaini genuen Maalan, eta bai bandako kideak eta baita ikusleak ere oso gustura geratu ziren kontzertu harekin. Batek baino gehiagok esan zigun kontzertu hura errepikatu egin behar genuela, oso ona izan zelako. Orduan erabaki genuen beste zerbait egin behar genuela. Eta iaz, Donostiako jaietan Irungo bandak kontzertua eskaini zuen Celtas Cortos taldearekin, eta nik kontzertu hartan parte hartu nuen. Iruditu zitzaidan egokia izan zitekeela Elgoibarren gauza bera egiteko. Taldearen managerrarekin egin nuen lehen kontaktua Donostian bertan, eta oporren ostean, Txomin Mujikak hartu zuen gestioaren ardura.

♦ Nola prestatu duzue gaur gaeuko kontzertua?

Celtas Cortosek kontzertu asko eskaini ditu formato honetan, eta dena oso ondo prestatuta daukate. Abestien partitura guztiak bandako instrumentuekin joteko prestatuta dituzte. Horiek bidali zizkiguten, eta baita abestien eritmoak, jakiteko guk zein eritmotan jo behar ditugun. Gure kontura egin ditugu entseguak, eta gaur egingo



Gorka Mujika, Jesus Cifuentes Celtas Cortos taldeko abeslariarekin.

“Gaur ere herritarrek ez digute hutsik egingo; seguru nago”

dugu azkena. Gaurko entsegu horretan Celtas Cortos taldeko kideak ere egongo dira. Astean bi egunetan bildu gara azken hilabete eta erdian. Normalean baino entsegu gehiago egin ditugu. Kontuan izan behar da gure hileroko kontzertuetan bost edo sei pieza jotzen ditugula, eta gaurko kontzertuan 16 pieza joko ditugu.

♦ Nola ikusten dituzu musika bandako kideak kontzertu honetarako?

Oso gustura. Bandan kide asko gaude, adin desberdinetakoak, eta modu desberdinean bizi dute kontzertu hau. Bartzuentzat Celtas Cortos talde ezezaguna da, baina beste bartzuentzat beraien gaitetako talde gustukoena. Nahiz eta taldea ez ezagutu, oso talde garrantzitsua da, eta eurekin joteak ilusioa egiten du.

♦ Zuzentzat ere kontzertu berezia izango da, zuk zuzenduko duzulako, ezta?

Berezia izango da, bai. Herriko Antzokitik kanpora jotea oso berezia da guretzat, eta gainera, plaza jendez beteta egotea espero dugu.

♦ Musika Bandak publiko oso fidela dauka. Zein da zuen sekretua?

Ez dakit, baina bai, publiko oso ona

daukagu. Txomin Mujika artista bat da obrak esplikatzen eta horrek ikuslea kontzertuan barneratzen du. Herriko Antzokia bete egiten dugu, eta gaur ere herritarrek ez dute hutsik egingo; seguru nago. Iazkoa ikusita, ez daukat dudarik. Iaz Maalan egon zirenek errepikatu egingo dute, eta han egon ez ziren asko ere etorriko dira, eta jakina, Celtas Cortos taldeak berak ere ikusle asko ekarriko ditu.

♦ Herriko Antzokitik kanpora jotzen beste publiko bat erakarriko duzue?

Bai. Jende batek banda Herriko Antzokitik formatuan bakarrik ezagutzen du, eta guk beti pentsatu izan dugu musika banda hori baino askoz gehiago dela. Trinitate-etako danborradan edo kalejiretan ikusten gaituzte kalean, baina kontzertuak ere eskaini ditzakegu eta gaurkoa bezalakoak dira hori erakusteko aukera.

♦ Azarotik aurrera zu izango zara bandako zuzendaria. Nola hartu duzu erronka hori?

Ilusioz, gustatzen zait zuzentzea, gozatu egiten dut, eta Elgoibarko Banda sekulakoa da, gainera.

Javier Varonak irabazi zuen Mintxetan jokatu zen Euskal Herriko txapelketa



Elgoibarko Zarta Arkulari Taldeak eta Gipuzkoako federazioak antolatuta, arku tradizionalen eta biluzien Euskal Herriko Arku Tiraketa Txapelketa jokatu zuten hilaren 10ean, Mintxetako igerilekuen ondoko zelaian. Igerilekuak ireki zituzten egun berean, hain zuzen ere. Hala, elkarren ondoan egon ziren arkulariak eta bainulariak. Guztira 30 bat arkularik parte hartu zuten hiru kategoriatan: arku instintiboak, longbow erakoak eta arku biluziak. Arku instintiboen kategorian, Zartako Javier Varona gailendu zen. Zartako arkulari gehiagok ere parte hartu zuten kategoria honetan. Hugo Sierra final laurdenetara ino ailegatu zen, eta seigarren postuan sailkatu zen. Andoni Campo eta Rafael Segui, berriz, bederatzigarren postuan sailkatu ziren.

Jabier Osoro nagusi Lehendakari Sarian, hirugarren urtez jarraian

San Migel taldeko Jabier Osoro bolariak neurria ondo hartua dio Lehendakari Saria txapelketari. Bera izan da irabazlea azken hiru urteetan, azkena joan den zapatuan. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketan sailkapeneko lehen 64 postuetan sailkatu ziren 64 bolariak parte hartu zuten 2017ko Lehendakari saria txapelketan. Eibarko Asola Berri bolatokia jokatu zen kanporaketa erara jokatu zen txapelketa hau, eta parean tokatu zitzaizkion aurkari guztiak kanporatu zituen bakarra izan zen Jabier Osoro elgoibartarra.



Espainiako Automodelismo Txapelketako proba jokatu dute Mendaron



Avar Eztanda elkarteak antolatuta Espainiako Automodelismo Txapelketako proba puntuagarria jokatu dute asteburuan Mendaroko Ospas-Gaineko zirkuituan. 1/8 TT ECO modalitateko auto gidatuak lehiatuko dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez da erraza Espainiako Txapelketako proba bat antolatzeko aukera eskaintzea, eta Euskadin jokatu den bakarra izango da Mendarokoa. 50 parte hartzailetik gora espero dituzte, tartean lehen sailkatuak. Errioxa, Gaztela eta Leon, Valentzia, Madril, Extremadura, eta Kanariar Uharteetatik ere etorriko dira parte hartzaileak. Elgoibarko eta Mendaroko lau parte hartzaile ere izango dira. Zapatuan eta domekan izango da txapelketa, 10:00etatik aurrera.

Nordic Walking ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Nordic Walking (Ipar Martxa) ikastaroa antolatu du ekainaren 24rako. Mintxetan izango da, 9:00etatik 12:00etara. Bastoien laguntzaz, hankei ez ezik, besoei eta orokorrean gorputzaren goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da Nordic Walking deiturikoa. Antolatzailen esanetan edonork egiteko modukoa da, eta dibertigarria gainera. Interesatuak Olaizaga Kiroldegian eman behar dute izena ekainaren 21a baino lehen. Patronatuko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta 30 euro bazkide ez direnek.



Maite Maiorak irabazi du Fuente De-ko kilometro bertikala



goera bertikalen Munduko Zirkuituko bosgarren proba jokatu zuten ekainaren 11n Kantabrian, Fuente De-ko Kilometro Bertikala. Emakumezkoetan hiru euskaldun izan ziren azkarrenak: Maite Maiora mendarorarra, Maria Zorroza gernikarra eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra. Garaipen honi esker, sailkapen nagusiko bigarren postuan dago Maiora, eta zazpigarrengoa Lendinez. Gizonezkoetan hirugarren postua lortu zuen Iñigo Larizek. Andorrako Ferran Teixido izan zen azkarrena eta Imanol Goñik egin zuen bigarren. Lariz Munduko Zirkuituko sailkapen nagusiko bosgarren postuan dago.



Gorka De La Horra txapeldunorde Gasteizko Mendiak proban

Gasteizko Mendiak mendi lasterketan 1.100 lagunek parte hartu zuten joan den ekainaren 10ean. Xabier Alzola Beltran de Heredia izan zen guztietan azkarrena. 6:02:24ko denboran amaitu zuen 62 kilometroko ibilbidea. Igo zituzten gailurren altuera xumea bada ere, metatzen den desnibela 5.816 metrokoa da. Irabazlearen-gandik hamalau minutura ailegatu ziren helmugara Lizarpe taldeko Gorka de La Horra elgoibartarra eta lokin Garai. Elkarrekin gurutzatu zuten helmuga-marra, kiroltasun erakustaldian. Biak sartu ziren denbora berdinean (06:16:22), baina epaileek De La Horrari eman zioten bigarren postua.

Ultra lasterketen Espainiako Txapelketa irabazi du Javi Dominguezek

La Travesera Integral Picos de Europa izeneko mendi lasterketaren 14. edizioa jokatu zuten ekainaren 10ean Asturiasen. Gainera, ultra lasterketen Espainiako Txapelketa ere jokoan zegoen. Europako Mendietako lasterketa hau gainerako lasterketengandik ezberdina dela diote antxitikariek, oso teknikoa eta desnibel handikoa delako (74km, 6.550m desnibel positibo eta 6.585m negatibo). Hamalau herrialde-tako ordezkariak parte hartu zuten, eta horien artean ziren ultra lasterketetako euskal selekzioko kideak, tartean Javi Dominguez. Bera izan zen azkarrena hamaika ordu, hamaika minutu eta segundo bateko denbora eginda. Kantabriako selekzioko Ivan Cuestak (11:18:37) egin zuen bigarren eta Andaluziako selekzioko Manuel Angita (11:28:11) sailkatu zuen hirugarren postuan.



Pala txapelketako finalerdiak astelehenean jokatuko dituzte eta finala, barixakuan



Martxo amaieran hasi ziren Emakumeen Binakako 6. Pala Txapelketa eta Gizonen 2. Pala Txapelketa. 26 bikotek eman zuten izena lehenengoan, eta hamar bikotek bigarrengoan. Hilabeteetako lehiaren ostean, astelehenean (ekainak 19) jokatuko dituzte finalerdiak Kalegoen plazako frontoian. Lehen finalerdian, (17:30), Kepa eta Julenek osatutako bikoteak Martin eta Arkaitzen aurka jokatuko du. 18:15etik aurrera jokatuko da gizonezkoen bigarren finalerdia. Gorkak eta Markelek Jokinen eta Josuren aurka jokatuko dute. Emakumezkoen lehen finalerdian (19:45) Idoiak eta Ebak Maiteren eta Iratxeren aurka jokatuko dute. Bigarren finalerdian, 20:10ean, Yolik eta Vanesak osatutako bikoteak Nerea eta Aintzanez osatutakoaren aurka jokatuko du. Finalak ekainaren 23an, barixakua, jokatuko dituzte.

Amaitu dute ikasturtea Mendaroko Pilota Eskolan



Mendaroko Pilota Eskolan aritu diren hemeretzi pilotariak amaitu dute ikasturtea. Festa giroan esan zioten agur denboraldiari. Azken entrenamendu egunean hainbat partida jokatu ostean Saint Gerons txokolate ogitaratekoak jan zituzten. Izan ere, eskolaren babesleetako bat izan da aurten Mendaroko txokolate fabrika. MTE txirindulari elkartearen babesean sortu zuten eskola 2015ean. 8 urtetik 12 urtera bitarteko umeez asteartertan eta ostegunetan edukitzen dituzte entrenamenduak Goñati pilotalekuan, 17:00etatik 18:00etara. Koskortuagoak astelehenetan ere aritzen dira. Hiru boluntario aritzen dira entrenatzaile lanetan. Hurrengo ikasturtean eskolara batu nahi duten haurrek Naiara Arrillagarekin jarri behar dute harremanetan, 688 649 596 telefono zenbakira deituta.



Eskubaloi Eguna izango da zapatuan

Sanlo eskubaloi taldeak Eskubaloi Eguna egingo dute bihar, denboraldi amaierako Sanlo Festarekin batera. Sanlok Kalegoen plazan egingo du bosgarren Eskubaloi Eguna. Benjamin eta alebin mailako neska-mutilentzako jardunaldia prestatu dute. Jokalari gaztettoek 10:00etatik 12:45era bitartean jokatuko dituzte partidak plazan. Era berean, 2016-2017 denboraldiari agur esateko festa antolatu du Sanlok biharko. Sanloko jokalari, entrenatzaile, guraso, eta laguntzaileak elkartuko dira Sigmako aparkalekuan egingo duten bazkarian.

Haundik uztailearen 15ean jokatuko du Realaren aurka

C.D. Elgoibarrek eta Realak uztailearen 15ean jokatuko dute Elgoibarko futbol taldearen mendeurrenako ospakizunen barruan antolatu duten lagunarteko partida. Donostiako taldearentzat aurre denboraldian jokatuko duten estreinako partida izango da, uztailearen 7an hasiko dituzte denboraldi berriko entrenamenduak. Partidaz gainera, C. D. Elgoibarreko presidente ohiei omenaldia egingo diete egun horretan, Mintxetan.

Ordurako Haundik jakingo du Oherrezko Erregional Mailan jarraitzen duen ala ez. Momentuz, bizirik dirau mailari eusteko ametsak. Hiru euskal taldek (Beasain, Alaves B eta C.D. Vitoria) Bigarren B Mailarako iguera faseko azken kanporaketa jokatuko dute, eta horietako bik iguera lortuz gero, eutsiko lioke mailari Haundik.

Ekigain jaia antolatu du Elgoibarko Izarrak eguaztenerako, udari ongi-etorria egiteko

Elgoibarko Izarrak Ekigain jaia antolatu du udari ongi-etorria egiteko, Udaleko Kultura Sailaren babesarekin. Ekainaren 21ean izango da jaia, udako solstizioaren egunean, hain zuzen ere. Aurreko bi urteetan egin duten moduan, aurten ere Sallobente-Ermuaran auzoan elkartuko dira, eta lagun artean eta jai giroan egingo diote ongi-etorria udari.

Sallobentera oinez joateko aukerarik ez dutenez, hitzordua 20:00etan izango da Sallobente-Ermuaran. Afari-merienda norberak eraman behar du etxetik, baina txosna bat jarriko dute arduradunek edariak erosteko. Frontala edo kopeta-argia eramatea ere komeni da, bueltako biderako. Elgoibarko Izarrako kideek elgoibartar guztiak animatu nahi dituzte Ekigain jaira, elkarrekin eta suaren bueltan udari ongi-etorria emateko.



EGITARAUA

19:00: Maalako parkean elkartuko gara, handik Sallobente-Ermuaranera oinez joateko.

20:15: Maskaren eta lepokoien tailerra.

20:45: Afari-merienda.

21:45: Suaren erritua: sua piztu, zuzeneko musika eta ipuinen bat entzun, berba eta izpiritu txarrak sutara bota, dantzan egin...

22:30: Suaren gaineko saltoak.

23:00: Jaiaren amaiera. Etxerako bidea, oinez.

Iñaki Perurenak harriarekin duen maitasun istorioari buruz hitz egingo du egunean

Tertuliak programaren barruan, Iñaki Perurena harri-jasotzaileak hitzaldia eskainiko du datorren egunean, ekainak 22. Emankizun poetikoa izango da. *Harria, maitasun istorioa* izenburupean, harria metafora bihurtuko du Perurenak, eta harriarekin izan duen istorioa modu berezian azalduko du. Perurenak ondorengo esan du hitzaldiari buruz: "harria urteetako bidelaguna izan da; bizi osoa daramat harriarekin, eta berarekin jarraitu nahi dut. Ezingo nuke sufritu nire harri gainean hautsa ikustea eta, era berean, hautsak harrotu nahi nituzke. Arnas berritzeak bizia ematen dit, eta ingurukoek ere neurri batean hori bizitzea nahiko nuke".

Saioa 18:30ean izango da, Kultur Etxeko sotoan, eta *Tertuliak* egitasmoak



antolatu duen arren, saio irekia izango da.

Tertuliak programa Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak kudeatzen dute elkarlanean. Saio hau antolatzeko Udaleko Kultura Sailaren laguntza jaso dute.

Gaztelekuko eta Ludotekako logotipo lehiaketa

Gaztelekuko eta Ludotekako logotipo lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 20ra arte luzatu dute. Lehiaketa irekia da eta elgoibartar guztiak parte hartzeko aukera. Partaide bakoitzak lau logotipo aurkeztu ahaliko ditu gehienez ere, bi udal zerbitzu bakoitzeko. Lanak Herritarren arreta bulegoan (Santa Ana kalea, 2; Sarrera Giza Eskubideen parkeatik) aurkeztu beharko dira, PDF formatuan. Irabazleek 500 euroko erosketa txeke bana jasoko dute, herriko dendetan gastatzeko. Informazio gehiagorako Udalera (943 741 050), Gaztelekura (943 748 883) edo Ludotekara deitu (943 743 228).

Gipuzkoako robotika olinpiada irabazi dute hiru elgoibartarrek

Naroa Rodriguez, Jone Navarro eta Claudia Arrillagak osatutako Pinparblue taldeak irabazi du Gipuzkoako robotika olinpiada, 7 eta 12 urte artekoen kategorian. Donostiako Zientziaren Museoan jokatu ziren robotika olinpiadak ekainaren 3an, eta partaideek turismo jasangarria sustatzeko robota egin behar zuten. Galtzeko arriskuan dauden animaliak babestu eta turistak leku seguruetatik eramango dituen robota, hain zuzen ere. Maila horretan hamar taldek hartu zuten parte, eta horietako hiru Elgoibarkoak ziren. Pinparblue taldeaz gain, The boss (Xabi Alonso, Ivan Migales eta Edi Miklos) eta Komotu (Iker



Astigarraga eta Xabi Goñi) taldeek ordezkatu zuten Elgoibar. Ikasle hauek otsailetik jardun dute lehiaketa prestatzen, IMHn, Doplay taldeko irakasleekin. Irailean Espainiako txapelketa jokatu dute, Murtzian.

San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Udaleko Kultura Sailak San Bartolome jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta 700 euroko sari bakarra emango dute. Lanen teknika librea izango da, baina ezinbestean agertu beharko da ondorengo testua: "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2017". Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira uztailaren 3ko 13:00ak baino lehen. Lehiaketari buruzko oinarri guztiak www.elgoibar.eus webgunean aurkituko dituzue.

Era berean, haurrentzako kartel lehiaketa ere antolatu dute. Kasu honetan 18 urtetik beherakoek hartu ahal izango dute parte. Lanaren neurria eta teknika librea da, baina ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere. Kasu honetan ere ezinbestean agertu behar da testu hau: "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2017". Epaimahaiak sei lan sarituko ditu, eta dirutan ez den sariak banatuko dituzte.

Informazio gehiagorako 943 742 158 telefonora deitu daiteke.

Biraka dantza eskolako azken saioa, gaur

Biraka dantza taldea ikasturte amaierako ikuskizuna eskaintzen ari da egunotan, *Biraka Disko* izenekoa, eta gaur eskainiko du Elgoibarko azken saioa. Josu Mujika elgoibartarrek zuzentzen duen Biraka dantza taldeko ikasleek ikasturtean zehar ikasitako dantza eta koreografiak eskainiko dituzte. 20:00etan izango da dantza ikuskizuna, Herriko Antzokian. Joan zen astean Mendaron eta Sorluzen eskaini zituzten emanaldiak.

Piedad Islaren Errealismo Poetiko argazki erakusketa antolatu du Ongarrik



Ongarri argazkilari taldeak Piedad Isla (Palentzia, 1926) argazkilari eta etnologoaren lanak jarriko ditu ikusgai Kultur Etxean. Dokumental itxurako argazki sorta izango da. 50. hamarkada zein ondorengo urteak bizi izan zituztenentzat balio historiko berezia duen erakusketa izango dela aurreratu dute arduradunek, eta baita bizimodu hura ezagutu ez zutenentzat ere. Zegokion garaiarekin eta lurraldearekin konprometitua, neorealismoan jardun zuten argazkilariak ez bezala, bizimodu horren parte izan zen Piedad bera ere. Palentziako mendialdean ateratako argazkiak dira gehienbat, bere herrialdekoak hain zuzen ere. 2009an hil zen Piedad, Madrilan, baina iruditzen utzi du bere ondarea. Gaur zabalduko dute erakusketa 18:30ean, eta 19:30ean argazkilariari buruzko azalpen txiki bat emango dute antolatzaileek. Erakusketa hilaren 30era arte egongo da ikusgai.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke, interna.

☎ 602 152 685

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. Gidabaimena dut.

☎ 602 490 595

Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.

☎ 665 205 505

Neska euskalduna eskaintzen da ospitalean gaixoak zaintzeko.

☎ 688 639 371

Adinekoak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lanetarako prest nago.

☎ 612 572 229

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.

☎ 612 533 866

Adinekoak zainduko nituzke, Elgoibarren edo Mendaron. Sukalde laguntzaile moduan esperientzia handia daukat.

☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna.

☎ 661 025 434

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna.

☎ 645 891 307

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan egoteko prest.

☎ 666 324 757

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. Gidabaimena dut.

☎ 689 571 882

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka.

☎ 655 094 780

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Erreferentzia onak ditut, eta zortzi urteko esperientzia.

☎ 638 857 100

Garbiketarako egiteko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna.

☎ 632 915 647

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia.

☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, asteburuetan.

☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak zainduz egingo nuke lan, interna edo orduka.

☎ 697 665 452

Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburuetan interna.

☎ 633 072 144

Nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 418 130

Mutil gaztea adinekoak zaintzeko, elkarrekin garbitzeko eta baserrian lan egiteko prest.

☎ 632 652 658

Garbiketarako egiteko prest nago. Euskalduna naiz, eta esperientzia daukat.

☎ 626 490 986

Nagusiak edo haurrak zaintzeko prest nago, orduka. Asteburuetan interna.

☎ 658 747 099 (Lucila)

Orduka lan egiteko prest nago. Etxeak, elkarrekin edo portalak garbituko nituzke.

☎ 653 160 233

Adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka.

☎ 653 156 403

Eskaintzak

Emakume euskalduna behar da adinekoak zaintzeko. Gidabaimena beharrezkoa.

☎ 699 217 721 / 606 523 477

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

Pertsona nagusi bat zaintzeko emakumea behar du, interna. Paperak legez izatea beharrezkoa.

☎ 669 339 529

KINTOAK.....

1957koen bazkaria uztailearen 1ean, Sigman. 13:00etan elkartuko dira Bala-tokian, luntxa 14:00etan, eta gero, bazkaria. 55€ko sartu, ekainaren 28rako: 2095 5036 55 1074745950

☎ 619 127 474 (M^{re} Jesus)

☎ 662 173 220 (Pili)

LOKALAK.....Pedro Mugurutzan 180 m²ko lokala salgai. 30.000 euro. Berritzeko.

☎ 667 528 134 / 676 087 537

BESTELAKOAK.....

Lursail edo baratza txiki bat erosi edo alokatuko nuke herriitik gertu.

☎ 669 339 529

Belar-hesiak mozteko makina salgai. Gutxi erabilitakoa. 150 euro.

☎ 667 406 490

Bilarra salgai.

☎ 678 376 320 (Eli)



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Elkarte Administrazioaren
Kolegioko Kondeak**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679**rosapf@telefonica.net****Kaletik etxe barruetako altzariak ikus ez daitezzen, fatxada ematen duten eguterak ixteko aukera izango du gure komunitatean hala nahi duen orok. Batzar berean adostu genuen itxi nahi ez duenak ezkutuan izan beharko dituela etxe barruko objektuak eta arropak egutera azpian esegi beharko dituela, ezkutuan, kaletik ez ikusteko moduan. Bizilagun batek, baina, bista-bistan du altzari bat eta arropa esegilekua ere kaletik ikus daiteke. Kendu arazi diezaiokegu?**

Etxe-jabeen komunitateak eraikinaren elementu komunei dagozkien erabakiak hartu ditzake bakarrik; sekula ez elementu pribatuen ingurukoak. Era berean, komunitateak ezin du erabaki etxe jabe batek nola jarri behar dituen altzariak bere etxe barruan, pertsona horren intimitatea urratzea litzatekeelako.

Arropa esegilekua fatxadan jarri badu, baina, komunitateak aukera izango du mugak jartzeko, legeak horretarako aukera eskaintzen diolako.

AHOLKUA: Etxe barruko zerbaiti eragiten dion komunitatearen erabaki batek legearen printzipio nagusiak urratzen ditu, komunitateak ez duelako horren gainean erabakitze eskuduntzarik.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Olga**, pasa den astelehena 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxe-koen partez.



Mila kilo zorion, **Elene!** Igandean 3 urte, maiztia! Ondo pasatu eta zorionak etxe-ko guztien partez.



Zorionak, **Maria**, atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu asko familiakoena eta bereziki, Elenaren partez.



Eta asteartian Pikupeko famaun urtebetetzia. Zorionak, **Mar-ke!** Elgoibarko sorgiñak tarta jatera juango gera.



Zorionak, **Mikel**, asteazkenean urtetxo bat egin zenituelako. Muxu handi bat Julen, Sara eta gurasoen partez.



Zorionak, **Aimar**, atzo 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoena eta bereziki, Danelen partez.



Zorionak, **Jon eta Javier**, 5 urte handi egin dituzuelako. Muxu handi bana, familiakoena partez.



Zorionak, **bikote!** Iristiar da egun handia. Kuadrillakuk emozionaute gaude zuekin momentu paregabe hau bizitzeko.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



elgoibar ikastola

PEDRO MIGUEL URRUZUNO, S.KOOP

OHIKO BATZAR NAGUSIA

Deialdia:

Eguna: 2017ko ekainaren 22a

**Ordua: 18:30ean lehen deialdia eta
19:00etan bigarrena.**

Tokia: Ikastola. Ermuaranbide, 7- Elgoibar

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

www.uzuroptika.com



STOP OTITIS!



16 BARIXAKUA

18:30 'Piedad Isla' argazki erakusketa. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta. Kultur Etxean.

20:00 Biraka dantza taldearen jaialdia. Herriko Antzokian.

22:00 Dantza modernoaren ikuskizuna Mendaroko Goñati frontoian.

22:30 Kontzertua: Celtas Cortos eta Elgoibarko Udal Musika Banda. Kalegoen plazan

17 ZAPATUA

10:00 Eskubaloi eguna. Partiden hasiera. Kalegoen plazan.

21 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: 'Jolasean eta kirolean gure seme-alabekin'. Unai Arrietak eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kalamua Guraso Elkarteak, Arreiturreko Guraso Elkarteak, Ikastolako Guraso Kontseiluak eta Ongizate Sailak antolatuta.

19:00 Ekigain jaia. Maalan elkartuko dira eta Sallobentera joango dira kalejiran, udari ongi-etorria ematera. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

22 EGUENA

19:00 Hitzaldia: 'Harria, maitasun istorioa'. Iñaki Perurenak eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Tertuliak programaren barruan.

20:00 Musika Eskolako talde finkoen kontzertua, Maalan.

URRUZUNO BAILARAKO JAIK

17 ZAPATUA

17:30 Meza, elkarteko atarian.

Segidan, luntxa.

Ondoren, trialsin eta umeentzako jolasak.

21:00 afaria Urruzunoko elkartearen, Uxue eta Arantzazu trikitilariekin.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

16 Barixakua GARITAONANDIA

17 Zapatua ETXEBERRIA

18 Domeka ETXEBERRIA

19 Astelehena FERNANDEZ*

20 Martitzena YUDEGO

21 Eguaztena FERNANDEZ*

22 Eguena BARRENETXEA

23 Barixakua IBAÑEZ*

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora

denean, asteburuetan ezik:

BARRENETXEA (Elgoibar)

Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA

Erretiroagatik erabateko LIKIDAZIOA!
Mila esker urte hauetan gudan konfidantza izan duzuen guztioi!

%20_{ko} deskontua **%30_{eko} deskontua**

TV · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112




Arantxa Etxabe Txurruka

2017ko ekainaren 8an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Enrike Artetxe Ansola

2017ko ekainaren 12an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




II. URTEURRENA

Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



II. URTEURRENA

Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen, 47 urte zituela.

***Udaberriarekin batera, urtero bezala,
ekainaren hamahirua utzi dugu atzean.
Gugandik joan zinen arren, Garbiñe maitea,
eman zenigun maitasuna dago gure artean.
Begirada eta irribarre eder haiek
betirako ditugu gure bihotzean.
Zure oroitzapenak gurekin dirau
mendian landaturiko haritzean.***

Zure kuadrilla





Eire Vila

Mikel Olaizola



Gutxien espero duzunean, sorpresa. Ateratzen da bat pasiaran arratsalde gris batean, eta garrasika harritzen du herriak, marradun aterkipean babestuta. Uuhhhh, uuhhhh! Uluka iluna, aho forman zabaltzen den osina, bidearen albo batean. Bere egur oholezko bibote eta azal zimurtuarekin, mingaina ateraz eskailera tankerako hortzetatik kanpora, zintzuraren sakonetik oihu egingo baligu bezala beste norabait deitzen gaituen zuloak.

Beste alde horretara, gure garaiaren argi hotzarekin kontraste den eremura, alde erantzira. Hain geure mundukoa den ospitale-

tako pasabidetako lanparen argi itzalia nagusi ez den itzalen dimentsiora. Elgoibarren erraietara garamatzaten tunelak, azalaren azpira, ezezagunera edo ezagutu nahi ez dugunera. Gure maparen puntu beltzak, ezkutuan ahaztuak, desioa eta beldurra ertz. Harrika egin diot, baina erantzunik ez. Zer ote hondoan?

Beste harri bat, oraingoan indartsuago, baina ezer ez. Imaginatzen ditut barruan zenbait preso, Platonen haitzuloaren mitoa bezala, lurrari kateatuak, itzalak ikusiz. Baina haientzat argia errealitatearen irudi zen bezala, eta irteerako bidean mingarri, gaur aurkara ez ote gabiltzan. Ez ote gauzkan lotuak argiak, arintasunak, aseptikoak. Hala bihurtu zaigu jasanezin iluna, zuriak erabat garaitu du beltza.

Ahaztu ote dugu zerk sortzen dituen munstroak?

“Bihurtu zaigu jasanezin iluna, zuriak erabat garaitu du beltza”



I. URTEURRENA

Mikel de Pablo Cid

2016ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela.

**Zure indarrak eta irribarreak
aurrera egiten laguntzen digu.
Beti gure bihotzetan, etxeakoak.**

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 17, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak biotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Juan M^a Uranga Uranga

2017ko ekainaren 9an hil zen.



*Herrigintza eta hizkuntza
zenitun gidari,
Santa Agedari ere
bihotzez kantari
Emaztea, sendia,
lagunak ugari,
zu ezagutze hutsa
Izan dugu sari-
Gugan biziko zera
betiko Juan Mari-*



**Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.**

Juan Mari Uranga Uranga



*Leku bat beti izango duzu
eskaleon bihotzean.
Zure gomuta berrituko da
gure koplak bakoitzean.*

*Faltan botako dugu taldean,
Juan Mari, zure itzala.
Hainbeste aldiz onratutako
Agedak hartu zaitzala.*

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea



Ekainak 21, asteazkena

EKIGAIN Jaia

Sua, ura, natura eta ... GU, urteko egunik luzeena ospatzeko

Egitasmoa:

- 19:00 Maalako parkean bilduko gara, Sallobente-Ermuaranera oinez joateko.
- 20:15 Maskaren eta lepokoien tailerra.
- 20:45 Afari-merienda.
- 21:45 Suaren erritua: sua, musika, ipuinak, izpiritu txarrak sutara, dantza ...
- 22:30 Suaren gaineko saltoak
- 23:00 Jaiaaren amaiera.

Oharrak:

- Oinez joateko aukerarik ez duzenontzat, 20:00etan izango da hitzordua Sallobente-Ermuaranen.
- Afari-merienda norberak eraman behar du, baina txosna jarriko dugu edariak erosteko. .
- Frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da, bueltako biderako.

Antolatzailea:



Babeslea:



HARRIA. MAITASUN ISTORIOA

IÑAKI PERURENAREN EMANKIZUN POETIKOA

Ekainak 22, osteguna
19:00
Kultur Etxeko sotoan

Harriarekin izan duen istorioa modu berezian azalduko digu Perurenak, ordubete inguru irauten duen emankizun poetikoan.

"Harria urteetako bidelaguna izan da;

bizi osoa daramat harriarekin eta berarekin jarraitu nahi dut.

Ezingo nuke sufritu nire harrien gainean hautsa ikustea".

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:

